

INAUTERIAK

2019

CARNAVALES



atxo, boteroa, borregazo, cascabobos, cipotero,
jitomoxorrak, katxi, katxiburrero, landarra,
mamutxarro, mantajuna, máscaras, maskak,
momoxarro, momotxorro, moru, mozorro,
moxorro, mutxurriko, muxigarda, ñañarro,
oridos, txantxo, txatar, txatxo, txatxu, txitxila,
zaborrero, zaldikoa, zanpantzar, zamarrero,
zaputero, zarrakuta, zarratrakoak, zirinuak,
zomorro...

INAUTERIAK

Euskal herriko inauteriek izen desberdinak hartzen dituzte lekuen eta euskalkien arabera. "Iauta", "Inauteri", "Iyoti", "Aratuste", eta abar. Ospakizun hauek duten denboraluzera zehazten zaila da, izan berriz, Errege jaien bezperatik Garizumara bitarte.

Euskal Herriko inauteriek dituzten morfologia desberdinak direla eta, oso dira korapilatsuak. Beren egitura sinpleena gazte ezkongabeen (mutilak besterik ez garai batean) komunitatean oinarritzen da. Gazte hauek, arropa zahar eta maskarez hornituak, makilak eta erratzak aldean zituztela, herrian barna abiatzen ziren, bertako mutiko eta neskato guztiak izutzen zituztelarik. Aldi berean, eskean ibiltzen ziren kaleetan zehar: garai batean, etxeko janariak eskatzen zituzten, baina azken aspaldi honetan, dirua, eta horrela, sos horien laguntzaz askarifarria egiten zuten.

Zerri-hiltzeetatik geratzen diren hondarrak bilduz markatzen da neguaren bukaera. Negua, eskasiaren garaiaren adierazlea dena, berehala bukatuko denez, hori ospatzea oso jai garrantzitsu bilakatzen da, murrizketa guztiek bukaera izaten bait dute, eta horren atzetik, udaberriak, bizitzaren zikloa osatuko duena, bizitzaren esperantza bait dakar.

Zuberoak oraindik ere gordetzen du antzerki izaera nabarmena bere inauterietan, hain zuzen ere "Maskarada" izenarekin ezagutzen dugun horretan. "Maskarada"ren funtsa, kontrako talde biren arteko liskarra da, hau da, Gorriak eta Beltzak izeneko taldeen artekoa.

Zuberoan, inauteria antzezten denean, antzerkiak, kanteak, dantzek eta ofizioek antolamendu zehatza erakusten dute. Den dena egiten da "Jaun" eta "Andrea"ren begiradapean.

CARNAVAL

El carnaval en Euskal Herria responde a diversos nombres según áreas geográficas y modismos dialectales. "Iauta", "Ihauteri", "Iyoti", "Aratuste", etc. La fijación de su tiempo es complicada, hay zonas en que la palabra sólo fija los tres días de Carnaval, en otros sitios se denominaba a un amplio periodo de tiempo desde la víspera de Reyes hasta la Cuaresma, etc.

El Carnaval en Euskal Herria es muy complejo en cuanto a la gran variedad de morfologías que presenta. Su estructura más sencilla descansa sobre la comunidad de jóvenes solteros (solamente muchachos en otro tiempo) que disfrazados con ropas viejas y máscaras, armados de palos o escobas recorrían la población, asustando a chiquillos y muchachas y realizando una cuestación, normalmente de productos caseros, en época más reciente dinero, con la cual realizaban una merienda o cena.

El final del invierno se marca con esta recogida de productos, últimos restos de la gran fiesta de la matanza del cerdo, y la proximidad de fin de la estación de invierno, época de penuria, es celebrada con una fiesta importante, por cuanto en ella se finalizan las privaciones y la primavera trae la esperanza de una nueva vida al completar el ciclo vital.

En **Zuberoa** tenemos una forma de carnaval muy teatralizada que se conoce con la denominación de "Maskarada". La "Maskarada" se fundamenta en el enfrentamiento de dos grupos antagónicos: Gorriak,-lit. "los rojos"- y Beltzak,-lit "los negros"-.

El carnaval en el caso de Zuberoa constituye una representación teatral donde los cantos, bailes, y "oficios",

Pertsonaia eta talde guztiek jendaurrean erakutsiko dituzte beren gaitasun eta ahalmenak. Horrela, "Marexalek" "Zamalzain" hori perratu nahi izaten dute, eta "Kherestuek" berriz, zikiratu; "Txorrotzek" "Jaunaren" ezpata, agintearen ikurra dena, zorrotz dute; "Kauterek" izugarritzko afana jarriko dute hondoa hautsitan duen lapiko zahar bat konpontzeko. "Ofizio" guzti hauek biltzen dira Zuberoako jai horretan.

Bitxikeria bezala, talde guztiek lehen saiakeran huts egiten dutela esan genezake, eta bigarrenean, berriz, asmatu egin behar dute. "Kauterak", taldearen kide den "Pitxou"ren heriotza, bere nagusi den "Kabana"ren heriotz solasa eta ondoren "Pitxou" berpiztea izaten dira bukaera ezartzen diotenak Zuberoako inauterietako jai honi.

Antzerki itxura emanaz antolatzen diren "ofizioak" eta baserrietako zereginak **Altsasu eta Urdiaingo** inauterietan era aurki ditzakegu. Altsasuko pertsonaia hauek larruak, zintzarriak, zaldizurdezko maskarak, idi-adarrez apainduriko otarre bat buruan eta besoak gorri zikindurik zituztela maskaratu eta kalera irteten ziren belarra biltzeko adar hiruhortzekoez (sardak) armaturik. Pertsonaia hauek beldurra eta izua sortarazten zuten haurren artean; horra hor, "Mamotxorroak"/ "mamuzarrak" izena zeukaten gizon hauengandik ihes egiteko arrazoia.

Behenafarroako eta Lapurdiko konpartsek ikaragarritzko antolamendua dute, militarra dela esan liteke. Napoleonen garaiko militarren janzkera gogorarazten duten txanoak erabiltzen dituzte haietako askok. Antolamendu horren pertsonaiak ondoko hauek ditugu: "Bandelariak", "Gorriak", "Makilaria" (danborjole nagusi modura), "Zigantak" (erraldoiak), andrazkoen itxura duten bi figura txiki, "Zaldizkoak" (zurezko zaldietan sartzen direnak), eta azkenik, kopuru aldakorra duten "Bolantak".

Lapurdiko eta Behenafarroako inauterien dantzak nahiz konpartsak antzekoak dira, alarik ere, ez dira nahastu behar. Lapurtarrek modu bereko gustua dute konpartsa antolatzeko orduan: "Bandelaria", arropa zuriez eta loredun kapelez jantzitako "Kaskarotak" (bolanteen itxurakoak), kapel konikoa

tienen un ordenamiento preciso. Todo se hace bajo la presencia de "Jaun" y "Andrea".

Los personajes y grupos que hemos citado representaron públicamente sus "habilidades" manuales. Los "Marexalak" pretenderán herrar al "Zamalain", y los "Kherestuak", castrarlo; los "Txorrotxak", afilarán el sable del "Jauna", símbolo de autoridad; y los "Kauterak" se afanarán en la composición de un viejo caldero, roto en su fondo.

Todos estos "oficios" se suceden en la fiesta de Zuberoa y, cada grupo, fallará en un primer intento, debiendo hacerlo bien en su repetición. La muerte de "Pitxou", del grupo de los "Kauterak", el "discurso fúnebre" de "Kabana", su jefe y la posterior resurrección del personajes darán fin a la fiesta carnavalesca de Zuberoa.

Los "oficios", la representación de diversas labores campesinas dentro de un plano casi teatral, se encontraba también en el Carnaval de **Alsasua y Urdiain**. Los personajes enmascarados, en el caso de Alsasua con pieles, cencerros, máscaras de crin de caballo, un pequeño cesto sobre la cabeza adornado con cuernos de buey y los brazos manchados de rojo, salían a la calle armados con tridentes de rama, "sardiak", de los empleados para recoger la hierba y causaban terror entre la población infantil y que huía ante estos terroríficos caballeros que se conocen como "Mamotxorroak"/ "mamuzarrak".

Un exquisito ordenamiento casi "militar", es el que conforma las comparsas **Bajonavarras y Labortanas**. Los personajes, muchos de ellos con cascos militares que recuerdan a uniformes napoleónicos, se ordenan abigarradamente en "Bandelariak" (abanderados); "Gorriak" (los rojos); "Makilaria" (una especie de tambor mayor); "Zigantas" (gigantes) dos pequeñas figuras de aspecto femenino; "Zaldizkoak" (jinetes); y como final los "Bolantak" (bolantes).

Las danzas y comparsas del Carnaval Labortano tienen

eta jantzi arlekinatua duten "Ponpiterrak" (suhiltzaileak), Behenafarroako "Gorri"en antza duten hauek gona gorritz jantzita daude, eta beren jatorria zehazki ezagutzen ez den arren, abereekin zerikusirik dutela uste izan da; maskaradak, behi edo zaldien buztanak, eta, gerriko zintzarrak eramaten dituzte apaingarritzat. Kotilun gorri hauek errautsa botatzen zioten beren koadrilan zegoen orori. Guzti hauez gain, Zuberoako maskaradan ikusi dugun bezalaxe, "Jaun" eta "Andrea" pertsonaia klasikoak ere plazaratu ohi ziren.

Erreketa gertatzen deneko errito zahar horietan ikusten denez, herriak kasuan kasuko pertsonaiari ("Miel Otxin" Lantzen, "Mikelua" Lapurdiko Gertarin, edo "Markitos" Zalduendon) leporatzen dizkio bertako jendeak egindako huts guztiak.

Lehenago aipatu ditugun panpinen erreketak ezezik, norbait erruduntzat jotzea ere izaten da garrantzi handiko jarduna, eta horien lekuko, Nafarroako Goizueta eta Arano herrietan egiten diren Zagidantzak.

Bizkarrean abere-larrua eramaten duen pertsonaiari jotzea da jai honen funtsa, eta Gipuzkoan, J.I. Iztuetak jaso zuen bezala, zaindariaren jaien bukaera adierazten duena ere. Hortaz, inauteriak aldi "sakratu" bezala agertzen dira bete-betean. Guzti horrekin, eguneroko aldi "profanoa" hausten da, eta ondorioz, aldi hori etetea ezinbestekoa da bizitza-ziklo berri baten "antolamenduari" ekin ahal izateko.

ZARATA ETA HOTSIA: honaino iritsi den azalpen hau ezin buka genezake zaratak eta hotsak ardatzat dituzten inauteriak aipatu gabe: Ituren eta Zubietako Inauteriak. Azpiko gonak, larruak eta joare handiak izaten dira pertsonaia hauen aipagarriak, eta beren jatortasunaren lekuko. Bertako dantza delarik ere, kontutan hartu beharra dago Euskal Herrian ezezik Europan zehar ere izan izaten direla horrelakoak: Suiza, Zerdeina, Bulgaria, Grezia, eta abar. Ospakizun horren zintzarriotsek, loak hartuta dagoen natura esnatu nahi dute. Nafarroako Erratzu herrian ere modu beretsuan egiten da, baina hemen, joareen orde, bonboak joaz. Donostian, berriz danborren laguntzaz apaintzen dute jaia, bertan jotzen den

semejanza con la de Baja-Navarra, aunque evidentemente, no se deben confundir. Poseen los labortanos el mismo gusto por el ordenamiento de la comparsa: "Bandelari" (abanderado); "Kaskarotak" vestidos de blanco, con sombreros de flores, recuerdan a los "Bolantak"; "Ponpierrak" (bomberos), tocados con sombreros cónicos y traje arlequinado; "Bestagorriak" (chaquetas rojas), son el equivalente bajonavarro de los "gorri"; "Kotilun-gorriak" (los de faldas rojas), personajes de oscura procedencia, posiblemente animal, con mascararas, colas de vaca o caballo, esquilas en la cintura, y se encargaban de arrojar ceniza a la gente que veía en el cortejo. Además solían salir los clásicos "Jaun" y "Andrea", tal y como hemos visto en la mascarada de Zuberoa.

Las quemas de muñecos, propias del carnaval, se manifiestan de forma dramática dentro de fiestas como la de Lanz o Zalduendo. Son viejos rituales donde la comunidad acusa a un personaje ("Miel-Otxin" en Lanz, "Mikelua" en Getari de Laburdi, o "Marquitos" en Zalduendo), de las faltas cometidas por la colectividad.

El chivo expiatorio, otro de los componentes del carnaval, presente en las "Zagi-dantzak" de las localidades navarras de Goizueta y Arano, además de las quemas de muñecos que hemos comentado, constituyen manifestaciones de gran interés.

El apaleamiento de un personaje que lleva sobre sus espaldas una piel de animal constituye el centro de esta fiesta que, en Guipúzcoa, fue anotada por J.I. de Iztueta, como propia del final de las fiestas patronales. En este sentido, el carnaval como tiempo "sagrado" se manifiesta en todo su esplendor. Es la ruptura de un tiempo "profano", cotidiano, y la interrupción de este tiempo se hace de todo punto necesaria para el "ordenamiento" de un nuevo ciclo vital.

RUIDO Y ESTRUENDO: para terminar con el carnaval en esta elemental exposición, tenemos una manifestación

musika Saralegi maisuak XIX. mendean asmatu zuelarik. Hala eta guztiz, kanpo itxurak bestelakoak diren arren, izpiritua bera da guzti guztietan.

carnavalesca en la que el ruido es el componente fundamental. Los Carnavales de Ituren y Zubieta con personajes vestidos con enaguas, pieles y grandes cencerros, tienen dentro de nuestras morfologías una gran originalidad. Pero debemos tener en cuenta que son muy conocidos en el resto de Europa: en Suiza, Cerdeña, Bulgaria, Grecia, etc., donde el ruido del cencerro trata de despertar a la dormida naturaleza. De la misma manera ocurre en el pueblo de Errazu, con el frenético golpeo de bombos, o en Donostia con los tambores, en una fiesta que musicalmente fue "ordenada" por el maestro Saralegui en el siglo XIX (La tamborrada); pero el espíritu, el sentido de todas las fiestas, es el mismo.

"EUSKALDUNAK"izeneko Entziklopediatik ateratako testua.

Texto extraído de la Enciclopedia "Euskaldunak".